

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arano

Aurkibidea

Udalerria: Arano

Sarrera



Nafarroa Ipar-mendebalean dago kokatua, Gipuzkoako Hernanirekin muga eginez. Urumea ibaia ez da herrigunetik pasatzen, baina Iparralde eta Ekialdeko mugak markatzen ditu. Iparraldean Donostiako lur zati txiki bat, Hernani, Erreterria eta Goizueta ditu mugakide; Hegoaldean, Elduain eta Goizueta; Ekialdean, berriro ere Goizueta eta Mendebalean Hernani. Itsas mailarekiko 446 metroko altueran dago eta Arano guneari aparte, Beheko herri, Suro, Latse, eta Arranbide auzoetan banatuak daude bere baserriak. 1630 arte Goizuetarena izan zen nekazaritzara eta artzaintzara emandako herria. 1982tik 2009ra bitartean, Keler garagardo-fabrikan lan egin izan dute herritar askok, urte horretan itxi zen arte. Arano da herrigunetik bertatik Kantauri itsasoa ikusten den Nafarroako herri bakarra.

• **Biztanleak:** 134

• **Euskaldunak:** -

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **17**
- Pasarteak: **16**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **16**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Jose Antonio Ansa Huici *Beltso* (1947-2023)



Aranoko Suro auzoko Beltsokoborda baserrian jaio zen. Hamar senidetan zaharrena izan zen eta bera gelditu zen baserrian. Aita eta ama Aranokoak bertakoak zituen, auzokoak, eta aitona-amonak ere bai. Hamahiru urte bete zituen arte auzoko eskolan eta gero herrian ibili zen ikasten. Hamalau urterekin basoan hasi zen lanean pinua sartzan eta gurasoek gaueko eskolara bidali zuten. Hamazazpi urte arte aitarekin batera basoko lan horretan aritu zen, baina gero, errotako soziedadearen mendian hasi zen beste langile batzuekin. Denetan gaztetxoena bera izaki, arrantxero ibili zen. Soldadu ibili eta handik itzuli zenean, Mitxelinen sartu zen eta han hamaika urte egin eta gero, Aranoko garagardo fabrika eman zituen beste hemeretzi urte. Aranon bizi izan da beti.

Roke Ansa Huici (1922-2010)



Suro auzoko Maisueneko Bordan jaio zen. Bederatzi senide izan ziren eta denek etxeko lanetan ederki ikasi behar izan zuten. Zazpi-zortzi urte zituenerako, anaiak txandatu, herriaren beste muturrean dagoen Enazti baserrira joaten ziren hango izebari laguntzera (ama bertakoa zen eta aita, berriz, Maisueneako Bordakoa, biek aranoarrak). Bertan lo egiten zuten eta eskolan nahi baino gutxiago ibili ziren ondorioz. Eskolan ibili zen pixka, Suro Martzeneako Bordan ibili zen, eta herrian ere bai. Kontsejuko ganbaran ere eskola izaten zela gogoratzen zuen. Herriko okindegian ofizioa ikasten eta laguntzen ibili zen bi urtez, eta hamalau urterako Mairtzenean ere bai, morroi. Basoan ere ibili zen, baina azken urteetan bere etxeko sotoan izan zuen dendagatik ezaguna izan zen Roke. Aranon bizi izan zen beti.

Anttonio Ezeiza Urruzmendi *Anttonio Exkerra* (1936)



Donostiako Antiguon jaio zen, baina berehala, ama alargun geldituko zen hamar seme-alabarekin eta Anttoniok hiru urte besterik ez zituela, Aranoko Olasora ekarri zuten bertako familiak haziko zuela-eta. Olasoko familian txikiena zen eta oso ongi bizi izan zen bertan. Lan asko izaten zuten etxean, ardiak, behiak eta gainerakoak zaintzen, eta berezitasun bat ere izaten zuten: herriko elizako kanpaiak jotzeko ardura beregain zuten etxekoek. Olasoko aitonak erakutsi zion egunean zehar kanpai bakoitza nola jotzen zen, noiz eta zertarako. 23 urterekin hasi eta zazpi urtetan jarraian, Frantziara joan zen uda lanean pasatzera orduan Aranoko gazte askok egin ohi zuten bezala. Gero, Mitxelin fabrika hasi zen lanean Lasarten eta handik erretiratu zen.

Erramun Huici Legarreta (1930-2011)



Aranoko Enazti baserrian jaio zen. Aita zuen baserri horretakoa eta ama Aranoko Beheko Herriko Mairtzeneakoa. Sei senide izan ziren eta baserrian ahal zuten lur guztia artoa ereiteko erabiltzen zuten. Aitak beheko zentrolean lan egiten zuen eta bera ere ibili zen han bi urtean. Gero Hernaniko paper fabrika lan egin zuen baina ardiekin zuen afizioa beti mantenduz. Bertso zaharrak kantatzeko ere afizio handia izan du beti. Hogeita hemezortzi urte zituela Ereñozura joan zen bizitzera eta geroztik han bizi izan zen.

Axun Izagirre Biurrarena (1931)



Aranon jaio zen, Askatsu baserrian. Sei senide izan ziren eta bera izan zen neska bakarra. Aita bera oso txikia zela hil zitzairen baina etxean jende asko bizi zela du gogoan. Pagoako eskolan ibili zen eta zentrolean lan egiten zutenen seme-alabei hala tokatzen zitzaielako, Santioko ermitan jaten ematen zieten beraiei, beste batzuekin batera. Apaizak eguerditan film mutuak ere jartzen zizkiela gogoratzen du eta doktrina erakusteko ere hartzen zuten denbora berriro eskolara itzuli baino lehen. Josten ikasten ere ibili zen eta hogeita bost urterekin Hernanira ezkondu zen. Geroztik hantxe bizi izan da, 2007an Donostiara joan zen arte.

Juan Mari Izagirre Biurrarena Askatsu (1922)



Aranotik Hernanirako bidean dagoen Askatsu baserrian jaio zen. Ama Argorri baserrikoa zuen (bide horretan bertan badago ere Errenteriako aldean dago) eta aita Aranokoa. Sei senidetan zaharrena zen bera. Baserri txikia zen Askatsu garai hartan: bi behi, berrogeita hamar bat ardi, txerri pare bat, oilo batzuk... baina gogor lan egin behar izan zuen etxean. Aranon negu batez bakarrik ibili zen eskolan eta Zarauzko maistrarekin gazteleraz egin behar zen. Aranoko haurrak nahiko erraz moldatzen omen ziren gazteleraz bere aldean, eta berak ez zuen denbora luzea eman bertan. Berehala pinua aldatzen hasi zen basoan eta horretan frankotan aritzen zen. Andoaingo pertsiana fabrika batean sartu zen gero eta Hernanira ezkondu zen.

Maria Ester Legarreta Ansa (1951)



Aranoko Beheko Herriko Mairtzenea baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Mairtzenea baino beheraxeago dagoen Ezkerran Bordakoa. Lau senide izan ziren eta bera bigarrena eta emakume bakarra zen. 11 urterekin neskame lan egin zuen herriko Kooperatiba tabernan eta herriko festa batzuetan Plaza tabernan ere laguntzen aritu zen. Guzti horrek lagunduko zion agian, Kontseju taberna utzi zutenean, urte asko zeramaten tabernariei erreleboa hartzera. 17 urte egin zituen herriko taberna horretan eta geroztik egin dituen lanak ere taberna inguruetan izan dira gehienetan. Aranon bizi izan da beti.

Margarita Leonet Perurena *Margari* (1929)



Margarita Aranon jaio eta Donostian bizi izan da. Gurasoak Aranokoak zituen. Aitak Iberdrolako zentrolean lan egiten zuen eta amak baserrian seme-alaben laguntzarekin. Sei anai-arrebatatik laugarrena zen Margarita. Jose Legarreta arantarrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Felixa Narbarte Petrikorena (1929)



Aranoko Suro auzoko Martzeneko Borda baserrian jaio zen. Aita Aranokoa bertakoa zuen eta ama Eratsundik etorria. 9 senidetan zaharrenetakoa zen eta beraien etxean maistrak bizi izaten ziren. Bere etxea zen Suroko eskola bere garaian. Suro auzoan bertan gelditu zen ezkondata ere eta bertan bizi izan da beti.

Xanti Zabala Loiarte (1942)



Aranon sortu zen Leontxon Borda izeneko baserrian. Aita bertako semea zen eta ama Goizuetatik etorri zen Leontxon Bordara. Bederatzi senide izan baziren ere, hiru hil egin ziren arrazoi ezberdinengatik. Xanti denen artean zaharrena zen, baserrian gelditu zena. Baserrian lan egiteaz gainera, mendian ere ibili izan zen Xanti eta txondorrak egiten ere ikasi zuen gaztea zela. Aranon bizi izan da beti.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gurasoek adina egin dezake gazte batek umeen zaintzan (ARO-003/004)

Gurasoek adina egin omen dezake edozein gaztek ume txikien zaintzan. Berari egokitu zitzaion eginkizun hori, gurasoak ez baitziren ailegatzen.

2. Lur arinak ziren etxekoak (ARO-003/005)

Baserriko lanabesak: aitzurra, gurdia... Goldarik ez zen etxe guztietan izaten. "Makotu" egiten zen lurra. Beren etxean areaz konpontzen ziren. Oso lur arinak eta gozoak zituzten, baina zenbait etxetan zokor-mazoa erruz erabili beharra egoten zen.

3. Are berria ostu zieten (ARO-003/007)

Txikia zela are erosi berria ostu zieten baserritik. Aitak lapurra nor zen susmatuko zuen baina sekula ez zuen horretaz hitz egiten.

4. Aguazilaren garia gazteek hondatu (ARO-003/009)

Garirik ez da erein izan Aranon. Aguazil egiten zuenak erein omen zuen behin. Ontzeko pilatu zuen eta goiz batez dena barreiatuta agertu zen errepidean. Gazteak izan omen ziren gaiztakeriaren egileak.

5. Hiru gau lorik egin gabe (ARO-003/012)

Lo oso gutxi egiten zuen okindegian lanean zebilenean. Astean behin bakarrik zuen gau guztia lotarako, eta orduan ere berez esnatzen zen goizeko ordu bata aldera. Inoiz hiru gau jarraian ere egin zituen lorik egin gabe eta horrelakoetan bidean ibiltzen ere lo hartzen omen zuen.

6. Okin ona Aranokoa (ARO-003/013)

Okindegia non zegoen. Txikia zelarik, sei librakoak egiten ziren. Okin ona zen herrikoa. Gizon makala; aberea (astoa), berriz, ondo gobernatua izaten zuen. Beti haserre ibiltzen zen gizona.

7. Errota eta argindarra (ARO-003/017)

Aranoko errota. Bertan lan egindako jendearen izenak. Elkarriketatzailearen aitona ere ibili zen. Argia ere handik lortzen zuen Aranok, errota ondoko zentraletik. Argindar-etxean lanean ibilitakoen izenak.

8. Teilatuko euri-ura posaderan biltzen zen (ARO-003/019)

Teilatuko euri-ura "putzadera" izeneko deposito batean biltzen zen. Ez zuen edateko balio. Iturritik ekartzen zuten edatekoa. "Iturri beltza" oso ona omen zen.

9. Pittarra etxerako (ARO-003/020)

Pittarra egiten zen etxerako. Aranon dolare bakarra zegoen orduan. Txandaka egiten zuen etxe bakoitzak.

10. Dotrina ikasi zutenean, aldatu (ARO-003/022)

Kontsejuan (udaletxean) ezagutu du eskola. Maistrak ez zien arreta handirik jartzen. 60 umetik gora izaten ziren eskolan eta ez zuten ezer ikasten. Eskolatik irten eta dotrinara. Dotrina ondo ikasi behar zen. Dotrina ikasi zutenean, aldatu egin zieten testua. Amak negar ere egin omen zuen horregatik. Euskaraz zen. Etxean ikasi behar izaten zen. Apaizak oso estu hartzen zituen.

11. Hil-kanpaia, su-kanpaia eta abar (ARO-003/026)

Hil-kanpaia jotzen zen norbait hiltzen zenean. Emakumearena eta gizonarena desberdinak ziren. Mantso-mantso jotzen zen. Su-kanpaia, berriz, oso azkarra zen. Horretaz gain, hiru angelusak: argi-ezkila, "keda"...

12. San Migel Aralarkoaren bisita (ARO-003/028)

San Migel Aralarkoaren irudia ekartzen zenean festa handia izaten zen Aranon. Herrian sartu aurretik hasten ziren kanpaiak. Amak nahikoa lan zuen halako familia janzten.

13. Herriko "amerikanoak" ura ekartzeko prest (ARO-003/030)

Herrian zeuden "amerikano" batzuek ura ekartzea ordaintzeko prest zeuden. Batzarrak egin ziren eta kalamidaderen baten erruz hondatu zen asmoa.

14. Bi soinujole herriko festetan (ARO-003/035)

Lehendabizi ttunttuna zen herriko musika: txistua eta danborra. Gero soinu-jotzaileak ekartzen hasi ziren festetan, bat gazteek eta bestea herriak.

15. Urnietako Beltza erroskilla saltzailea (ARO-003/039)

Urnietako Beltza etortzen zen erroskillak saltzera. Piperrak ere saltzen zituen. Zozketak egin ere bai.

16. Erretratista, kinkila-saltzaileak eta arrain saltzaileak Aranora (ARO-003/041)

Erretratista etortzen zen festetan Aranora. Ez omen zuen argazki asko aterako, diru gutxi zegoen eta. Kinkila-saltzaileak eta traperoak ere bai. Arrain saltzailea gurditxo batekin etortzen zen "arrain minduarekin".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com